




BATAIOA



ZAP!



BITARTEAN I



Aspaldi ez dela, seme edo alabaren jaiotzarekin bizitza aldatu egin zaizue. Hainbat gauza aldatu behar izan duzue zuon bizimoduan eta izaera berrira moldatzen ari zaretela esan daiteke.

“La locura de ser padres” bideoa ikustea proposatzen dizuegu.



**IKUSTEKO,
KLIK EGIN
KLAKETAN**



**ENTZUTEKO,
KLIK EGIN NOTAN**

Irribarrea ateratzeaz batera, hainbat iritzi, bizipen... gogoraraziko zizuen, ezta? Gelditu une batez eta hausnartu aita edo ama izateak eragin dizun “eromenari” buruz. Ahal izanez gero, idatzi, hartu astia horretan pentsatzeko eta bikotean batera jarri zure pentsamenduak.

Pentsatu zuengan, zuen bizitzan, zein da zuen euskarria?, norengan jartzen duzue konfiantza?, zertan sinesten dut? Entzun abesti hau eta utzi Jainkoari zeure burua aldatzen.

SAKONTZEKO


Askotan, buruari bueltak eman eta ez dagoela hitzik gauza batzuk azaltzeko konturatzen gara, eta pentsamenduek, ametsek... iraun egiten dutela, itsatsita bagenitu bezala.

Matrix pelikulako atal honetan, denok bizi izan ditugun sentipen hauetako batzuk agertzen dira. Eta, batez ere, aukeratzeko unea nabarmentzen da.

Bizitzan, aukeratu egin behar izaten dugu, bai ala bai; begiak itxi ditzakegu ala erantzunen bila jardun... Michael Jordan saskibaloiko jokalaria handi eta trebeak zioenez, “porrota onar dezaket, ez saiatzea da ezin onar dezakedana”.

Jainkoarengan sinestea, galderaz eta zalantzaz beterik dago, ez da bide erraza eta ezinbestekoak dira fede eta konfiantza. Hori bai, osotasunera garamatzan bidea da.

Hona hemen esteka, egoera horretan jarri eta pentsatu...



**IKUSTEKO,
KLIK EGIN
KLAKETAN**